

IUBILAEUM A. D. 2000

Jaunaren 2000garren urteko Jubileuan sartuta gagoz. 1999garrenen abenduaren 25ean asi genduan eta 2001garrenen urtarrilaren 6an burutuko dogu. 1999. Natibitate egunetik 2001. Erregen egunera arte iraungo dau Urte santuak

Jubileu onen biotza Jesukristo berbera dogu. Bere 2000garren urteurrena ospatzen dogu-ta. Aita Santuak "Tertio millennio adveniente" agirian diñoanez, 2000. urteko Jubileuak "gorrespen eta esker-otoitz andia izan bear dau, Jaungoikoaren Semea gizon egin zalako eta Berak gure alde Erospen-egintza egin ebalako.

Beste orrenbeste diñoskue Bilboko Gotzaiñak euren "Jaunaren grazi urtea iragarri" deritxon dokumentuan: "Guztiok urtero ospatzen dogu geure jaioteguna; geure bizitzako jazoera nagusiak ere -esaterako, ezkontza, abadegintza edo erlijioso profesatza-, gogoan izan oi doguz, batzutan jai egiñez ere bai. Ori olan dala, zer dala-ta ez ete dau ospatuko Eleizeak Jesukristo gure Jauna jaiotzeko 2000 garren urtea? Olako egunetan eskerrak emoten deusaguz Jaungoikoari, geure poza beste batzukaz banatzen dogu eta, aurrera begira, espirituzko jokabideak ere bizkortu egiten doguz. 2000 garren urtea, zeatza ala ez alde batera itzita, ondo baino obeto jatorku Jesukristo gure Eroslea fedez eta esker onez gogoan izateko".

Komenigarri jakuz olako momentuak. Ez jake falta, ez, arrazoirik gure Gotzainei beste au be gogoratzen deuskunean:

IUBILAEUM A. D. 2000



“Sasoi guztiak dira egokiak Jaungoikoagana biurtzeko; baina psikologikoki lagungarriak doguz aparteko egun, jazoera, leku eta beste zer batzuk. Kristau espiritualitatea azur eta maminezkoa da; eta kristau erriak fede eta debozinoaren erri adierazpenak bear ditu. Garbitasun erlijioso ez da sentimenduen eta fedearen kultura adierazpenen antzutzea. Benetako erlijiozkotasuna beartsuei laguntzean egiaztatzen da, ez biozkaden leortasunean. Jesusen jaiotzaren 2000. urtea, urtemuga biribila benetan, graziazko kairos eta salbamenerako aro aproposa izan daiteke, eta izan bear dau”.

Guzti au kontuan izanik, lantxo au bi zatitan banatuko dot. Leenengo zatian jubileuaren sustraiak Biblian ikusten aleginduko naz. Bigarren zatian, ostera, Eleizaren historian izandako jubileuak aipatuko ditut eta 2000. urteko Jubileuaren asmoak eta elburuak azpimarratu.

1. Jubileua Biblian

Jubileua ez da atzo goizeko asmakizuna. Biblian ditu bere oinarriak. Jubileu berbea bera be hebraierako “Yobel” berbatik dator. Aari adarra esangura dau. Adar ori erriari jai deia egiteko erabiltzen zan. Ortik datorkio berba oni emoten jakon poz adiera ori be. San Jeronimok Biblia latinera itzuli ebanian jubilaus berbea erabilten dau sonoritate bardintsua daukelako. Ta berba biok jai-poza adierazten dabelako.

Israeldarrak aundikiro ospatzen eben jubileu urtea. Urte ori zapatuagaz eta urte sabatikoagaz lotuta egoan. Judutarrentzat, asteroko atsedena, zapatua zan. Zazpi urtetik bein, urte sabatiko ospatzen eben eta zazpi urte sabatikotik bein jubileu urtea. Judutarrentzat zazpi zenbakia garrantzizkoa da, “Jaungoikuak bere lana zazpigarren egunean amaitu, bedein-katu, santutu eta atsedena artu ebalako” (Has. 2. 2-3)

Urte sabatikoak eta zapatuak be elburu bera daukee. Atsedena. Lurrari arnasbidea emon bear jako eta pobriei lagun-

tza. “Sei urtez ereingo dozu zure lurra, eta batuko dozu solo-aria; baina, zazpigarrenean, lurra landu barik itziko dozu, zure erriko beartsuek jan dagien, eta, an geratu daitena, basoko abereek jango dabe. Beste orrenbeste egingo dozu zure maasti eta oriondoai buruz” (Ur 23, 10-11)

1.1 Jubileu urtea

Jubileu urtea estu-estu lotuta dago zapatuaz eta urte sabatikoaz. Zazpi urte sabbatikoetatik bein jubileu urtea. 50garren urtean Jubileu urtea izaten zan.

Ona emen jubileu urtearen aldarrikapenaren testua:

“Eta zazpi urteko zazpi aste, edo zazpitan zazpi urte, edo bardin dana, berrogeita bederatzi urte zenbatuta, zazpigarren ilearen amargarren egunean, lurralde guztian adarra joko dozu; Parkamen-egunean adarra joko dozue zuen errialde guztian. Berrogeita amargarren urtea santu egin eta lurraldean bizi diran guztientzat askatzea iragarriko dozue. Parkamen-doea ospatuko dozue: bakoitzak bere lurra barriro bereganatuko dauz, eta bakoitza bere etxeakana biurtuko da. Berrogeita amargarren urte ori parkamen-urtea da zuentzat: ez dozue azkenengo gari-batzerik erretako kimurik ebagiko, inausi bagarik dagoan zuen maastietako mordorik be ez dozue batuko, parkamen-urtea da-ta: urte santua izango da zuentzat. Lurra berez ekarri dagiana jango dozue. Parkamen-urte orretan, bakoitzak bere lurra barriro bereganatuko dauz. Zure lagun-urkoari zerbait saltzen edo erosten badeutsazu, inok be ez deiola bere anaiari kalte egin. Zure lagun urkoari erosi deiozuna, parkamen-urtetik igarotako urteen neurritara erosiko deutsazu; eta berak be solo-ari-urteen negurritara salduko deutsu: urte geiagorako ordain geiago, eta urte gitxiagorako ordain gitxiago emon bear, urte aretako solo-ariak saltzen deutsuz-ta. Zuetariko inok be ez deiola bere lagunurkoari kalterik egin. Bidlur izan zakioz zure Jaungoikoari. Neu naz zuen Jaungoiko Jauna” (Lb 25, 8-18).

Lurra eta erria Jaungoikoarenak dira. Eta Jaungoikoak zapalketa guztiak apurtzeko deia egiten dau. Zorrak ordaintzeko emondako lurak bere jatorrizko jabeari iltzultzen jakoz. Ez da dirurik irabazitan emoten eta beartsuak onartzen dira. Zordunak ordaintzerik ez badau, etxean artzen da. Beste errikide batzuei jopu lez saldutako israeldarrek euren askatasuna berreskuratzen eben jubileu urtean, danak Jaungoikoarenak direlako.

1.2 Jubileua Jesusen bizitzan

Jesukristok Testamentu zaarreko jubileu urtearen espiritua bereganatu egiten dau: “Beartsuei Barri Ona emotera bialdu nau; giltzapetuei askatasuna eta itsuei ikusmena iragartera; zapalduen askatasuna emotera, eta Jaunaren errukizko urtea iragartera” (Lk 4,18-19).

Jesukristok, berbaz eta egitez, deabruak bota, txarkeriatik askatu, gaixotasunak osatu, pekatuak parkatu eta Jaungoiko errukitsua aurkezten dauanian, jubileu urteak asitako bideari jarraitzen deutso.

Baina Jesusek jubileu urtearen espiritua gainditu egiten dau. Jesusek iragarten dauan Jaungoikoa danak onartzen ditu, ez bakarrik judutarrak. Onak eta txarrak. “Entzun dozue: zure lagunurkoa maite izango dozu, eta zure arerioari gorroto izango deutzazu. Nik, barriz, auxe dirautsuet: Maite egizuez zuen arerioak, egizue otoitz aurrean zabilzanen alde: bere eguzkia on eta gaiztoen gainera atarazoten eta euria on eta gaiztoen gainera eginarozten dauan zeruko zuen Aitaren seme izan zaitez. Izan be, maite zaituenak maite badozuez, ze sari izango dozue? Zerga-batzaileak eurak be ez dabe, ba, ori egiten? Eta anaiak soilik agurtzen badozuez, zer egiten dozue geiegikorik? Jentilak eurak be ez dabe, ba, ori egiten? Beraz, izan zaitez bikainak, zeruko zuen Aita bikaina danez” (Mt 5,43-48).

Jesukristok, berbaz eta egitez, Lege zaarreko jubileu urtearen espiritua onartu eta gainditu egiten dau.

2. Jubileuak Eleizaren historian

Eleizaren historian, jubileuak ez dira jaio goitik bera, betik gora baino. Eleiztarrek eskatuta sortzen da leenengo Urte santua. 1300garreneko urtearen asieratik, ainbat eta ainbat kristau erromesek artu eben Erromako bidea. Orrenbesteko jendetza-
ren erreguz, Bonifazio VIII.ak jarri eban 1300. Urte santu beze-
la. Baina otsailearen 22an asiko da urte orretako Jubileua. Erromako San Pedro Basilikako atea, gau eta egun, zabalik egongo dira erromesak artzeko. Erromesen artean, Dante Alighieri idazlari sonatua agertzen jaku.

Andik 50 urtera ospatuko da bigarren Jubileua, Aita Santua Avignon egoala. Gero 33 urtetik urtera ospatuko dira, Jesusen bizitzako urteak kontuan izanik. Ta 1470garren urtetik gero, jubileuak 25 urtetik urtera izango dira. Baiña 19. mendean, 1825 eta 1875 jubileuak baiño ez dira ospatuko. Ta 20.garren mendean, jubileuak au dala edo ori dala ugaritu egin dira. Guztira, oraingoaz, 29 Jubileu ospatu dira Eleizan

2.1 2000. urteko Jubileua

2000. Jubileua Juan Pablo II Aita Santuak iragarri euskun orain dala sei urte. 1994. azaroaren 10ean, "**Tertito millennio adveniente**" agiriaren bitartez. Bertan ipinten euskuzan bi etapa 2000garrengo Jubileua prestatzeko. Leenengo fasea, au da, 1994-1996. bitartean, kristauak Jubileu onen adieraz eta esanguraz jabetzeko izan da. Ta bigarren aldia, 1997-1999, Irutasun Deunaren misterioa ospatzeko jarria izan da. Leenengo urtean Jesukristo eta Bateoko sakramentua gogoratu ditugu bereziki. Bigarrenean, Espiritu Santua eta Sendotzako sakramentua. Ta azkenengo urtean, Zeruko Aita eta Adiskidetzako sakramentua.

Ta Jubileuaren deialdi ofiziala egingo dausku Juan Pablo II.ak "**Incarnationis Mysterium**" Buldaren bidez. Ori gertatu zan, 1998. azaroaren 29an. Aita Santuaren Buldaren sei puntu nagusiak onexeeek dira laburtuta:

“Jaungoikuaren Semearen Gizakundearen misterioari begiratu, Eleizeak irugarren milurtekoaren atalasea prestatzen diardu. Salbamenaren historiak Kristorengan dau bere gorenko mailea eta Berarengan aurkitzen dau gorenko esangurea” (1. zkia).

“2000. urteko Jubileu Aundia atarian dogu” (2. zkia.).

“Urte Santua, Irutasunari, Goi-goiko Jaungoikoari zuzendutako gorespenezko kantu bakar eta iraunkorra izango da eta Eukaristia Sakramentua sakondu eta ospatzeko era egokia” (3. zkia).

“Bateo bera jasota, Jesus Jaunagan fede bera daben guztiek abestu deioela ereserki au Irutasunari, Semearen Gizakundeagaitik” (4. zkia).

“Jai haundi hau dala-ta, beste erlijño batzuetako jarraitzaileak eta Jaungoikoaganako fedetik aldenduta dagozanak ere gugaz batera poztu daitezala” (5. zkia).

“Beraz, 2000. urteko Jubileu Aundia 1999ko Gabon gauean astea agintzen dot, Vatikanoko San Pedro Basilikako Ate Santua zabalduz. Eta lekuko Eleizetan, Jubileuaren asierea, Jaunaren Natibitate egun santuan ospatu daitela agintzet dot. Jubileu Urtearen amaiera Jesukristo Gure Jaunaren agerkunde egunean, 2001. urteko urtarrilaren 6an, izango da” (6. zkia).

2. 2 Bilboko Gotzainen deia

Jubileuari buruz, beste Euskalerriko eta mundu guztiko gotzainek bezela, Bilboko gotzainek be “Jaunaren grazi Urtea iragarri” deritxon agiria argitaratu dabe. Aita Santuaren ildotik jarraituz, dei aberesgarri bat zuzendu dauskue Bizkaiko eleiztarroi Urte santua ospatzeko. Ona emen bertako bost puntu nagusiak:

Iru ikuspegi eta bide bat: “Eleiza osoagaz batera Urte Santua ospatzea, Ebanjelizatzearen II. Egitasmoari ekiten jarraitzea, eta gure Eleizbarrutia sortu zaneke 50. urteurrena gogoan izatea” (1. zkia).

Gogoan izan Jesukristo: "Jesusen jaiotzeagaz asten da Urte Santua, eta honek esan gura dausku Jesus gogoratu bear dogula, batez ere (...) Kristautasuna esaerea onetantxe sartu geinke: 'Kristautasuna Jesukirsto da'. Jesús, Jaungoikuaren Seme gizon egina, Bera da kristinautasunaren ardatza, laburpena eta gunea" (2. zkia).

Jaungoikoaganako biotzbarritu eta gizakiekin adiskidetu: "Jubileu Andia, jubileu guztiak, biotzbarritzeko dei bizi eta larria dira. Urte santua edo jubileu urtea, pekatuen parkatzea eta Jaungoikoaren errukia lotuta dagoz; orrexegaitik da Jaunaren urtea". (3 zkia)

Giltzapetuei askatasuna iragarri: "Jubileu urtearen kristau tradizioak gorputzaren eta espirituaren, norberaren eta gizartearen askapena dau jomugatzat. Urte santuak, beraz, iru alderdi batzen ditu: Jaungoikoak gure zorrak parkatzea, anai-arrebekin adiskidetzea eta gizarte alderdia" (4 zkia)

Maria, Jaungoikoaren Ama: "Jubileu urteak Mariaren presentziaz bustita egon bear dau. Zuzentasun-Eguzkia dan Jesukristoren aurretik dator, egusenti lez" (5 zkia)

2. 3 Bizkaiko Elizaren 2000. urterako keinua

Bizkaiko Eleiza ainbat ekitaldi eder bideratzen darabilgu Urte Santu onetan zear. Besteak beste, merezi dau aipatzea kanpoko zorra dala-ta artutako erabaki au: "Jubileua 2000 nazioarteko kanpanearen berealako elburua errialde erabat txiro eta guztiz zorpetutzat jotako 42 nazinoen zorraren %100a parkatzea da. Ordainketen parkamena bilatzeaz gain, askatutako baliabideak garapenean erabiltea ziurtatu gura da, aal dan neurrian. Jakinekoa danez, 42en zerrendako errialdeen %75a Afrikakoa da, aaztuta daukagun kontinente orretakoa. Kanpainearen eraginez, errialde industrializatuek, EEBBak buru dirala, uko egiten dautsoe zerrenda onetan dagozan errialdeen zorra kobratzeari. Beste gauza batzuen artean, ordainke-

tea egitea ia eziñezkoa dalako. Baina oraindik zintzilik dago bigarren erronkea: garapenean erabili.

Eta or kokatzen da Bizkaiko Eleizaren 2000. urterako kei-
nua.

Maila guztietako (elizbarrutia, alkarte, talde edo erakundeak, bakarka, etab.) gure aurrekontuen %1a Afrikako alkarte osasun eta ezkuntza azpiegiturak martxan jarteko eskeiniko dogu; egiteko au, baliabideak zentzunez eta eraginkortasunez erabilten dabean eta Eleizeagaz lotura dauken erakundeen esku itziz”.

Bizkaiko Eleizaren keinu au ondo datorku Jubileuaren elburuak lortu eta gizartea sentsibilizatzeko. Merezi dau olako ekintzei biotz zabalez erantzutea.

Andoni Olea